

Baiña, ene seme, ez egiezu zuk jaramonik egin.  
 Ondo bat-banatuta daukiez bai zure utsegiteak !  
 Mundu guztiak daki zein gozo-zale zarean ! Eta  
 origaitik salobera deitzen dautzue ? Eta ez dira  
 lotsa ? Zelan deituko leuskigue, orduan, guri, zu  
 guretzat ain atsegin izanik, mosuka jango zindu-  
 keguzan ezkero?

## II

## EPAILLEA

Esan beragaitik nai dozun beste, baiña nik  
 zuk eta edozeiñek baiño obeto dakidaz ene umea-  
 ren akatsak.

Nik ez dot maite ona dalako, seme dodalako  
 baiño. Eta zuk zelan jakin zengike bera zelako al-  
 txor dan, zuk bere irabazi ta utsak azta bardiñez  
 neurritu nai dozuzan orrek ? Nik zigor-azo bear  
 dodanean, iñoi zaiñe neureago dot. Negar ba'da-  
 ragiot, nire biotzak be negar dagi arekin batera.

Neuk bakar-bakarrik dot eskubide osoa salatu  
 nai nekarazteko, maite dauanak soilki zigortu da-  
 gike-ta.

## I2

## JOSTAILLUAK

Zori ontsua zu, auts artean etzunik, ordu lu-  
 zeetan zotz orregaz jolasean zabiltzan mutiko ori !  
 Barre egin bear nik, nai ta ez, zu goiz guztian,

orrela jostari ikusita. Nik be ordu luzeetan, bat-banatu ta bat-banatu diardut, neure kontuak ondo atera nairik. Eta ba-leiteke zuk, niri begira, au pentsetea: "Ori bai jolasketa ergela ! Goiza al-perrik galtzeko gogoa, nimbait !"

Ai, mutiko ! Nik aiztua dot, aintxiñatik, zotz eta lupetz-opillezko jolasketa ! Jostaillu garestiak baiño ez ditut opa,urre ta zidar-mordoak pilla-tu ! Zu, aukeran dozun edozer gauzaz, pozarren jolas oi zara. Nik, ostera, aldia ta indarrak be bai, iñoz euki ezingo dodazan gauzetan galdu da-roadaz. Ene ontzitxo aulean igaro nai neuke neurre gora-naiaren itxasoa ; ta aiztu egiten yat, antza, neu be olgetan, jolasean nabillela !

## 13

## IZARLARIA

Neuk soilki esan neban: "Illuntzean, illargi bete biribilla kadabuaren adarretan nastuten danean, ezin ete geinkeo oratu ?"

Baiña Dada'k, andiagoa da-ta, ixeka egin eustan, esanik : "Ezagutu yoadaz<sup>P</sup>n izakietatik gel-doena az. Illargia oso urrin dago gugandik. Nok eskuz oratu?

Nik erantzun neutson: "Dada, i bai azala kankaillu ! Ama leiora urreratu ta guri jolasketan irribartsu begiratzerk yauskukanean, ik uste dok ain urrin dagoala ?"